



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko martxoaren 22a

46. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- 11-24/POR-00117. Galdera, bizitegiak publikatzeko agenda bat, desgaitasuna dutenei arreta ematekoak lehenetsiko dituen, ezartzeko azterlanari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (3. or.).
- 11-24/POR-00119. Galdera, Ultzama ibaiari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (4. or.).
- 11-24/PES-00146. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuak Lizarrako zezenketen aldeko gazte-elkarteari 2024ko "aurrekontu parte-hartzaileetan" parte hartzea ukatu izanari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (4. or.).
- 11-24/PES-00147. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berrirako obrei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (5. or.).
- 11-24/PES-00148. Galdera, kirurgia robotikorako robota erosteari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (6. or.).
- 11-24/PES-00149. Galdera, Europako SEM (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa) eta/edo REACT funtsekin osasun-materiala erosteari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/PES-00150. Galdera, Osasun Departamentuak 2020an Turkian erositako 12 arnagailuei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00151. Galdera, "SEM komunikazio-kanpaina" G/080000/2262/232200 partidaren aurrekontu-aldaketarekin finantzatutako komunikazio-kanpainei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00152. Galdera, "SEM azterlan eta lan teknikoak" G/080000/2276/232200 partidaren aurrekontu-aldaketarekin finantzatutako azterlanei eta lanei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00153. Galdera, 2024ko martxoaren 7an Nafarroako Parlamentu ingurura 30 traktore baino gehiago iristean Foruzaingoak egindako jarduketei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00154. Galdera, Nafarroako lehen sektorearen tributazioari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00155. Galdera, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege-dekretuaren aplikazioari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (10. or.).

- 11-24/PES-00156. Galdera, Gazteendako Bermea programaren kudeaketari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00157. Galdera, Mendialdea I Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoan lanaldi jarraitua mantentzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00158. Galdera, jakitekoa ea kontseilaria zergatik ez den oraindik bildu Mendialdea I Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko zuzendaritza-taldearekin. Javier García Jiménez jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00159. Galdera, Nafarroako CONCAPArendako dirulaguntzaren zenbatekoari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00160. Galdera, garraio-zerbitzua partekatu behar duten ikastetxeen eskolaldiari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00142. Galdera, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege-dekretuaren aplikazioari buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- INT20240011. Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak (15. or.).
- INT20240011. Foru parlamentarien ordainsariak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak (15. or.).
- INT20240011. Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzegatiko ordainsariak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak (16. or.).
- INT20240012. Nafarroako Parlamentuko langile funtzionario nahiz kontratudunen mailaren arabeko ordainsariak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak (16. or.).
- INT20240012. Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak (17. or.).
- INT20240013. Talde parlamentarioen diru-esleipenak, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak (17. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/POR-00117. Galdera, bizitegiak publikatzeko agenda bat, desgaitasuna dutenei arreta ematekoak lehenetsiko dituenak, ezartzeko azterlanari buruzkoa***CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako gaurkotetasun handiko galdera, bizitegiak publikatzeko agenda bat, desgaitasuna dutenei arreta ematekoak lehenetsiko dituenak, ezartzeko azterlanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebil-

tzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako gobernu aurrerakoi eta plural baterako programa-akordioako gizarte politiken ataleko 6. puntuan honako hau jasotzen da: "Azterlan bat egitea bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartze aldera, desgaitasuna dutenei lehentasuna emanen diena".

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak zer egutegi dabil gogoan bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartzeko azterlan hori –desgaitasuna dutenei lehentasuna emanen diena– egiteko?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

**11-24/POR-00119. Galdera, Ultzama ibaiari buruzkoa***MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako gaurkotasan handiko galdera, Ultzama ibaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen eta Nafarroako Gortee-tako kide den Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gober-nuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kon-seilariari, batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer ari da gertatzen Ultzama ibaian?

Iruñean, 2024ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

**11-24/PES-00146. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuak Lizarrako zezenketen aldeko gazte-elkarteari 2024ko "aurrekontu parte-hartzaileetan" parte hartzea ukatu izanari buruzkoa***ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Nafarroako Gazte-riaren Institutuak Lizarrako zezenketen aldeko gazte-elkarteari 2024ko "aurrekontu parte-hartzaileetan" parte hartzea ukatu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluko agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gortee-tako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren

babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Honako hau jakin nahi dut Nafarroako Gazte-riaren Institutuak Lizarrako zezenketen aldeko gazte-elkarteari 2024ko "aurrekontu parte-hartzaileetan" parte hartzea ukatu diola-eta:

1.- 2024rako "aurrekontu parte-hartzaileetako" oinarrietako zer baldintza ez du betetzen Lizarrako zezenketen aldeko gazte-elkarteari aurkeztu duen "Capea y Gran Prix" proposamenak?

2.- Zer "aldaketa nabarmen" gertatu da azken urteotan animalien ongizateari dagokionez, halako jarduerak sustatzea egokia ez dela pentsatzeko?

3.- Nafarroako Gazteriaren Institutuko zer teknikarik edo/eta politikok hartu du erabakia?

4.- Proiektuak publikoak ez diren irizpide politiko batzuei jarraikiz erabakitzen baldin badira, zertarako ezartzen dira parte hartzeko oinarri publiko batzuk?

5.- Nafarroako Gazteriaren Institutua publikoak ez diren zer irizpide politiko erabiltzen ari da

erabakitzeko zer proiektuk parte hartzen duen eta zeinek ez "aurrekontu parte-hartzaileetan"?

6.- Dirulaguntza publikoen hemendik aurrerako deialdietan irizpide politikoak erabiliko al ditu Nafarroako Gazteriaren Institutuak, oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen badira ere?

7.- Nafarroako Gazteriaren Institutuak atzera eginen al du Lizarrako zezenketen aldeko gazte-elkarteari 2024ko "aurrekontu parte-hartzaileetan" parte hartzea dela-eta hartutako erabakiari dagokionez?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

---

## 11-24/PES-00147. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berrirako obrei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Cascanteko osasun-etxe berrirako obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andre-

ak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2021eko apirilean, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen Europako REACT funtsen kargura finantzatu zela Cascanteko osasun-etxe berria, 2022an eta 2023an bina milioi jarrita. Handik gutxira lizitazioa atera ziren proiektua eta obrazuzendaritza. Horiek esleitu eta egin ondoren, proiektua 2022an herriko udalari aurkeztu zitzaion. Harrezkero ez da horri buruzko inolako informaziorik eman. Hori dela eta, honako hau galdetzen diogu Osasun Departamentuari:

Zergatik ez dira hasi osasun-etxe horretarako obrak? Zer aurreikuspen darabilzue Cascanteko osasun-etxe berrirako obrak hasteko eta bukatzeko datei dagokienez?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

**11-24/PES-00148. Galdera, kirurgia robotikorako robota erosteari buruzkoa***LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, kirurgia robotikorako robota erosteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak noiz aurreikusten du erosiko duela kirurgia robotikorako robota?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

**11-24/PES-00149. Galdera, Europako SEM (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa) eta/edo REACT funtsekin osasun-materiala erosteari buruzkoa***ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Europako SEM (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa) eta/edo REACT funtsekin osasun-materiala erosteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1.- Nafarroako Gobernuak osasun-materialik erosi al du Europako SEM (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa) eta/edo REACT funtsekin?

2.- Hala baldin bada, zer material erosi du? Zer kostu izan du materialak? Noiz erosi zen materiala? Nortzuk izan ziren hornitzaileak?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-24/PES-00150. Galdera, Osasun Departamentuak 2020an Turkian erositako 12 arnagailuei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Osasun Departamentuak 2020an Turkian erositako 12 arnagailuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2020ko martxoan, Osasun Departamentuak 12 arnagailu erosi zituen Turkian, eta 2020ko apirilean iritsi ziren Iruñera.

Non dago orain arnagailu horietako bakoitza eta zertan ari dira erabiltzen?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-24/PES-00151. Galdera, “SEM komunikazio-kanpaina” G/080000/2262/232200 partidaren aurrekontu-aldaketarekin finantzatutako komunikazio-kanpainei buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, “SEM komunikazio-kanpaina” G/080000/2262/232200 partidaren aurrekontu-aldaketarekin finantzatutako komunikazio-kanpainei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2024ko urtarrilaren 24an aurrekontu-aldaketa bat egin zen, “SEM komunikazio-kanpaina” G/080000/2262/232200 partidaren kreditua jasotzeko. Zer komunikazio-kanpaina finantzatu da aurrekontu-aldaketa horren bidez?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## 11-24/PES-00152. Galdera, “SEM azterlan eta lan teknikoak” G/080000/2276/232200 partidaren aurrekontu-aldaketarekin finantzatutako azterlanei eta lanei buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, “SEM azterlan eta lan teknikoak” G/080000/2276/232200 partidaren aurrekontu-aldaketarekin finantzatutako azterlanei eta lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2024ko urtarrilaren 24an aurrekontu-aldaketa bat egin zen, “SEM Azterlan eta lan teknikoak” G/080000/2276/232200 partidan kreditua jasotzeko. Zer azterlan eta lan finantzatu da aurrekontu-aldaketa horren bidez?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## 11-24/PES-00153. Galdera, 2024ko martxoaren 7an Nafarroako Parlamentu ingurura 30 traktore baino gehiago iristean Foruzaingoak egindako jarduketei buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, 2024ko martxoaren 7an Nafarroako Parlamentu ingurura 30 traktore baino gehiago iristean Foruzaingoak egindako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Foruzaingoak noiz jakin zuen, zer ordutan jakin zuen zehatz-mehatz, 30 traktore baino gehiago heldu zirela Nafarroako Parlamentuaren ingurura 2024ko martxoaren 7an?

2. Nola izan zuen horren berri?

3. Noiz, zer ordutan zehatz-mehatz hartu ziren poliziak Parlamentuko atarira bidaltzeko erabakiak? Une bakoitzean bidalitako polizia-kopurua eta ordua jakin nahi dut.

4. Norenak izan ziren erabaki horiek?



5. Zer protokolori jarraituta hartu ziren erabakiak?

6. Zer jarduketa-protokolo ezarri zen agenteentzat, gerta zitekeen egoerari aurre egiteko?

7. Esku hartu behar izan zuten foruzainei zer baliabide eman zitzaion, gerta zitekeen egoerari aurre egiteko?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

## 11-24/PES-00154. Galdera, Nafarroako lehen sektorearen tributazioari buruzkoa

### *AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, Nafarroako lehen sektorearen tributazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ba al dauka datu estatistiko agregaturik PFEZa lehen

sektoreko autonomo gisa tributatzen duten nekazari eta abeltzainena? Guztira, zenbat nekazari eta abeltzaintzat da hori jarduera nagusia eta zenbatentzat jarduera osagarria?

Lehen sektoreko jardueran zenbat zergadunek egin dute PFEZaren aitortpena 2022an? Zeintzuk izan dira zerga-oinarriaren zehaztapen-modalitateak, oinarriak eta etekin garbiak? Zein da egoera?

2023ko ekitaldiko BEZaren zenbat itzulketa eskatu dute nekazariak eta abeltzainek gaur arte Nafarroako Foru Ogasunean? Zein da egoera?

Nafarroako Foru Ogasunak nekazaritzako gasolioaren zenbat itzulketa egin die nekazariak eta abeltzainei? Zein da egoera?

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ba al dauka datu estatistiko agregaturik nekazariak eta abeltzainek 2022an Nekazaritza Politika Komuna dela-eta jasotako kalte-ordainei buruz? Kalte-ordain horietatik zenbat jasotzailek egin zuten PFEZaren aitortpena 2022an? Zein izan zen kalte-ordain horien tributazioa eta batez bestekoak?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## 11-24/PES-00155. Galdera, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege-dekretuaren aplikazioari buruzkoa

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege-dekretuaren aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintzeko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege-dekretuaren ondorioz, nabarmen jaitsiko dira entitate publikoen, mankomunitateen, partzuergoen eta abarren diru-sarre-

rak. Entitate horietako bizilagun guztiei zabor-bilketaren ordainagiria igotzea ekarriko du, nahitaez, diru-sarreraren jaitsiera horrek. Nafarroako bizilagunek ez dute ulertuko zabor-bilketaren ordainagiria igotzea arau-aldaketa bat gertatu delako; are gehiago, ontziak eta papera biltzen eta sailkatzen dituzten mankomunitateak aintzat hartu gabe.

– Aintzat hartu al dira entitate publikoak, mankomunitateak, partzuergoak eta abar errege-dekretu hori aplikatzeko?

– Ontziak bildu eta sailkatzen dituzten mankomunitateekin lan-mahairik egingen al da, finantzaketa-eredu bat bilatzeko?

– Nafarroako Gobernuak kontuan izan al du mankomunitateen diru-sarreraren jaitsiera?

– Hondakin-funtsa aldatuko al da diru-sarreraren jaitsiera hori leuntzeko? Hala baldin bada, noiz aldatuko da?

– SCRAP-Erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboari berriz eman behar al zaio baimena ontziak biltzeko baimena izan dezan? Ecoembes-i baimena emateko asmorik al duzue? Noiz?

– Nafarroako Gobernuak zer egingen du SCRAP bati atxikirik ez dauden ontziratzaileen iruzurrari aurre egiteko?

Iruñean, 2024ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## 11-24/PES-00156. Galdera, Gazteendako Bermea programaren kudeaketari buruzkoa

*MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Gazteendako Bermea programaren kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Gazteendako Bermea programari lotutako kudeaketa-lanak egiten dituzten edo eskumena duten Nafarroako Gobernuko departamentuek idatziz erantzun dezaten:

Europar Batasunak finantzatzen duen Gazteendako Bermea programak 2013an sortu zenez geroztik bilatzen du bermatzea "gazteek, langabezian geratzen direnean edo hezkuntza formala amaitzen dutenean, lau hilabeteko epean, honakoak jasoko dituztela: enplegu-eskaintza bat, etengabeko hezkuntza, ikastunentzako prestakuntza edo praktika-aldia kalitate onarekin". Hau da, programak bilatzen zuena zen gazteak 4 hilabete baino gehiago ez egotea langabezian.

Jada hamar urte joan dira, eta argi dago urteotan ez dela programaren helburua bete, ez Europa mailan, ez estatu mailan, ez Nafarroa mailan. Halere, bai balio izan du langabezia arintzeko eta, bereziki, ikasten edo lan egiten ez duten gazteen kopurua arintzeko, hori baitzen programak taxutu zenez geroztik aitorturik zeukan helburu nagusia. Hortaz, onartuta programak gazteen egoera hobetzen lagundu duela baina ez duela bere helburu anbiziotsua betetzea lortu, honako hau galdetzen dugu:

1. Nafarroak zenbat diru jaso du 2022an Europako Gizarte Funtsari lotutako Gazteen Enplegurako Ekimenetik Gazteendako Bermea programarako?

2. 2023an zenbat diru bideratu zen azkenez Gazteendako Bermea programarako?

3. Nafarroako Gobernuak zenbateraino erabaki dezake zer ekintza finantzatu Gazteendako Bermea programaren bidez?

4. Zein da Gazteendako Bermea programaren bidez finantzatu diren ekintzen tipologia?

5. Nafarroako Gobernuak plangintzarako edo/eta kudeaketarako zer tresna eman dio bere buruari Gazteendako Bermea programa kudeatzeko?

6. Nafarroako zer entitatek kudeatzen ditu Gazteendako Bermeari lotutako funtsak? Nafarroako Merkataritza Ganberak zer eginkizun dauka programa horren kudeaketan?

7. Programa horren inpaktuari edo kudeaketari buruzko ebaluaziorik egin al da?

Iruñean, 2024ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

## 11-24/PES-00157. Galdera, Mendialdea I Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoan lanaldi jarraitua mantentzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Mendialdea I Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoan lanaldi jarraitua mantentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zer egingen du bermatzeko Mendialdea I HLHIPk orain arte bezalaz mantendu ahal izatea eskolaldi jarraitua?

Iruñean, 2024ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00158. Galdera, jakitekoa ea kontseilaria zergatik ez den oraindik bildu Mendialdea I Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko zuzendaritza-taldearekin

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, jakitekoa ea kontseilaria zergatik ez den oraindik bildu Mendialdea I Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko zuzendaritza-taldearekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Mendialdea I HLHIPri dagokionez, kontseilaria zergatik ez da oraindik bildu Mendialdea I HLHIPko zuzendaritza-taldearekin? Izan ere, zuzendaritza-taldeak lehenbizikoz otsailaren 26an eskatu zuen kontseilariarekin biltzea, azaldu ahal izateko eskolaldi jarraituaren alde familiek hartutako erabaki demokratikoa (eroldaren % 78k babestu zuena) errespetatzea ahalbidetzen duen proposamenaren bideragarritasuna.

Guraso-elkarteak ere eskatu du bilera bat egitea, baina oraindik ez dute erantzunik jaso. Zergatik?

Iruñean, 2024ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00159. Galdera, Nafarroako CONCAPArendako dirulaguntzaren zenbatekoari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Nafarroako CONCAPArendako dirulaguntzaren zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zergatik jaitsi du Nafarroako CONCAPAri 2022an eta 2023an dirulaguntza modura ordaintzen zion zenbatekoa?

Iruñean, 2024ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00160. Galdera, garraio-zerbitzua partekatu behar duten ikastetxeen eskolaldiari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, garraio-zerbitzua partekatu behar duten ikastetxeen eskolaldiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Jakin dugunez, Berriozarko Mendialdea I ikastetxeko hezkuntza-erkidegoaren parte bat haserre dago eskolaldia aukeratzeko prozesuaren azken emaitza dela-eta.

Eskolaldia aukeratzeko prozesuaren azken emaitza ikusita, eta kontuan hartuta garraioa partekatu behar duten ikastetxeek eskolaldi bera eduki behar dutela, zergatik ez da bateratzen ikastetxe horien errolda?

Iruñean, 2024ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

## **11-24/PES-00142. Galdera, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege-dekretuaren aplikazioari buruzkoa**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

2024ko martxoaren 18an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Jasotzat ematea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Félix Zapatero Soria jaunak erretiratu duela ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege-dekretuaren aplikazioari buruz egindako galdera, zeina 2024ko martxoaren 15eko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **INT20240011. Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak**

2024ko martxoaren 18an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2024. urterako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKITZEN DA:

**1.** Onestea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, lehendakariaren urteko ordainsari gordina 79.314,48 eurokoa izan dadila.

**2.** Ezartzea, 2024ko urtarrilaren 1eko eragina-ekin, Legebiltzarreko Mahaiak 2003ko abenduaren 30eko erabakiaren bitartez onetsitako irizpideak aplika daitezela Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak zehazteko.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **INT20240011. Foru parlamentarien ordainsariak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak**

2024ko martxoaren 18an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du, foru parlamentarien ordainsariak eguneratzeari buruzkoa.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17., 19. eta 42. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Onestea Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide izanik lanaldi osoko araubideari atxikita dauden foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 65.216,34 eurokoa izanen dela, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

**2.** Onestea lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari

gordina 57.968,54 eurokoa izanen dela, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

**3.** Onestea Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide izanik lanaldi osoko araubideari atxikita ez dauden foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 48.930,70 eurokoa izanen dela, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

**4.** Onestea lanaldi osoko araubideari atxikita ez dauden gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 43.476,44 eurokoa izanen dela, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

**5.** Ezartzea foru parlamentariet jasoko dituzten ordainsariet gehikuntza izanen dutela, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2024rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.



**6.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **INT20240011. Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatiko ordainsariak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak**

2024ko martxoaren 18an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak jaulkitako txostena, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17. eta 42. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak onestea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

a) 158,12 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

b) 187,00 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

**2.** Ezartzea ezen, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak igo eginen direla, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileentzat Estatuko legedian 2024rako ezartzen den gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **INT20240012. Nafarroako Parlamentuko langile funtzionario nahiz kontratudunen mailaren arabeko ordainsariak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, indarrean dagoen araudiari jarraituz, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Maila bakoitzak izanen duen hasierako soldata onestea. Honako hauek izanen dira zenbatekoak 2023an:

Maila	Urteko zenbatekoa
A	29.653,96 euro
B	24.946,88 euro
C	20.694,52 euro
D	18.023,04 euro
E	15.853,32 euro

**2.** Ezartzea ezen, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Nafarroako Parlamentuko



langileen ordainsariak gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2024rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **INT20240012. Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko behin-behineko langileen 2024rako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKITZEN DA:

**1.** Onestea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, jarraian zerrendaturiko behin-behineko langileen ordainsari gordinak:

– Lehendakaritzako Kabineteko burua: 59.389,40 euro.

– Lehendakaritzako idazkaria: 44.674,98 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 36.148,98 euro.

– Talde parlamentarioen laguntzaileak: 36.148,98 euro.

**2.** Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea Mahaiaren 2012ko abenduaren 17ko Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

**3.** Ezartzea ezen, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzura diharduten behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinek gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2024rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

**4.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **INT20240013. Talde parlamentarioen diru-esleipenak, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak**

2024ko martxoaren 18an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak aurrekontu-txosten bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren 2024ko ekitaldirako aurrekontuetan talde parlamentarioentzako jasotzen diren diru-esleipenei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 39 eta 42. artikuluek xedatuarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Ezartzea ezen, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, talde parlamentarioi dagozkien diru-esleipenek gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen zenbatekoen % 2koa.

**2.** Onestea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, talde parlamentarioek jasoko dituzten diru-esleipenak. Haien zenbatekoak hauek dira:

a) Diru-laguntza finkoa: 8.628,00 euro/hilabete/talde parlamentario

b) Diru-laguntza aldakorra: Kontzeptu haueetatik suertatzen den batura:

– Funtzionamendu-gastuak: 1.559,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Antolaketa-gastuak: 1.192,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Langile- eta jarduera-gastuak: 4.448,00 euro/hilabete/bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

Urtarrilari eta otsailari dagozkien kopuruak martxoan erregularizatuko dira.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



